

6 Aitor Uribe: niri sektorea eta bizimodu hau asko gustatzen zaizkit

15 Etxaldeak eta herriak bizi ditene beti laborarien alde

20 Reforma del actual sistema de cotizaciones a la seguridad social

3 EDITORIALA:

- La incorporación de nuevas personas a la actividad agraria debe ser el objetivo prioritario de esta década

4 IRITZIA

- Nafarroan elikadura burujabetza orain *Gotzone Sestorain*

5 BERTSOEN TXOKOA

6 ELKARRIZKETA:

- Aitor Uribe

10 ERREPORTAJEA:

- Hazialdeko

14 BERRIAK:

- Landa eremuaren defentsan Erdiz Bizirik aldarriak jendetza bildu zen Elizondoko karriketan

15 ERREPORTAJEA:

- Ipar Euskal Herria, ELBk 40 urte!

20 BERRIAK:

- Reforma del actual sistema de cotizaciones a la Seguridad Social

24 IKERKETA:

- El lavado de imagen del agronegocio

28 FORMAKUNTZA ETA GOMENDIOAK



La incorporación de nuevas personas a la actividad agraria debe ser el objetivo prioritario de esta década

Es muy probable que al leer el titular de esta editorial la primera idea que fluya sea la de “bastante tenemos con resistir, ¡como para pensar en nuevas incorporaciones!”. Y es comprensible desde la realidad individual de un día a día que transcurre dentro de una espiral especulativa en la que los inputs básicos (electricidad, cereales, gasóleo,...) no paran de subir. Pero a su vez desde las organizaciones sindicales y las instituciones, debemos tener la suficiente altura de miras para poder visualizar un desarrollo a medio y largo plazo. Una de las conclusiones que mayor consenso aglutina sobre las consecuencias de la actual crisis multidimensional es que debemos hacer las cosas de otra manera. Las estrategias derivadas del desarrollo en base a la globalización han llegado a su límite, y es imprescindible un cambio de paradigma de la producción agraria intensiva hacia sistemas agroecológicos diversificados. Y eso sólo es posible si somos capaces de garantizar una población activa significativamente numerosa en la producción de alimentos. La avanzada edad de la mayoría de las personas productoras es una realidad que debemos abordar desde una perspectiva ambiciosa y con una mirada de largo alcance. Las modificaciones que presenta el nuevo Gaztenek (programa de incorporación agraria) prioriza los procesos

de relevo en la actividad dejando en un plano inferior los procesos de incorporación de personas ajenas al sector, reduce de manera significativa la cuantía del complemento de renta y en la cuantía de las ayudas a percibir la inversión a realizar adquiere mayor peso específico. En opinión de ETXALDE supone un retroceso frente a las medidas que reclama la situación del sector. Debemos recordar que durante esta década en Hego Euskal Herria cerca de 6.600 personas van a entrar en edad de jubilación, y que cualquier proceso de relevo generacional mínimamente sólido debiera acercarse a esas cifras. Y un plan de esas características debería contar con bases sólidas, partiendo de que las nuevas incorporaciones no pueden ser pasto de la precariedad, es necesario garantizar una renta mínima de 1.200 euros mensuales, y un acompañamiento efectivo en los procesos de incorporación en los primeros 5 años (no puede limitarse a cumplir el expediente). Y paralelamente hay que acompañar estos procesos con políticas públicas decididas en torno a la alimentación. La creciente demanda de que la alimentación local y de proximidad esté más presente en los comedores públicos (centros escolares, hospitales y las residencias significan los periodos más sensibles del ciclo vital de las personas), necesita de apuestas claras que marquen objetivos ambiciosos. Que en el plazo de 5 años que al menos el 40% de la alimentación ofrecida mediante compra pública sea local y de proximidad, y que para el 2030 pudiéramos estar hablando de que fuera el 65%; son apuestas indispensables para articular y fortalecer los procesos de nuevas incorporaciones a la actividad agraria. Al mismo tiempo estaríamos asentando los cimientos imprescindibles para nuevos sistemas alimentarios más sostenibles.



etxalde@etxalde.eus
www.elikaherria.eus

Lege Gordailua:
SS 50-2015

Editorea: **ETXALDE**
Nekazaritza Iraunkorra
Elkartea
Diseinua eta maketazioa:
Diseinu eta Komunikazioa
AULESTI S.L.
Inprenta: **Gertu S. Coop.**
Maiztasuna: **Bihilabetekaria**
Aleak zenbakiko: **4.650**

NAFARROAN ELIKADURA BURUJABETZA ORAIN



Gotzone Sestorain

Nafarroa, lurralde aberatsa eta anitza. Bere mendi eta zelaietan lur emankorrak eta ur erreserba handiak gordetzen ditu. Klima anitzekoa. Honi guztiari esker lurralde ezin egokiagoa elikadura arloan. Mendeetan zehar nekazaritza eta abeltzaintza sistema dibertsifikatuak sortu zituzten bertako nekazariak, biodibertsitate handikoak, elikagai desberdin ugari eskaini dizkigutenak Euskal Herriko herritarroi oso kilometro gutxiren bueltan.

Baina, zoritxarrez, egun gure lurraldeko errekurtsuak ez daude horretara bideratuta, gure lurraldea ere ez dago egituratuta helburu horrekin. Azken lau hamarkadetan iraganeko nekazal sistema konplexuak alde batera uzten joan dira kasu gehienetan eta industrializazioaren eta merkatu librearen logikaren morroi bihurtu da landa eremua. Iraganeko paisai kolore-anitza aldatzen joan da, biodibertsitate galera ikaragarri baten lekuko.

Nafarroan, egun, landutako lurraren %75 monolaborantza bihurtua da, nagusiki animalien ale eta forraje ekoizpena bideratua, ekoizpen dibertsifikatuak alboratuta (tartean lekadunak). Merkaturatzea, berriz, AN operadorearen bidez, planeta mailako merkatu librean egiten da.

Labore-lurraren %25 gizakion elikadurara zuzendua dago: barazki, fruta, olibondo eta zerealaren zati txiki bat. Baina hauek ere ez dute helburutzat gure komunitateko elikadura beharrak asetzeari. Nafarroako Erriberako lur emankorrenetan ekoizten diren barazkien ia %99 Europa Iparraldera doa. Fruta eta olioak ere esportatu egiten da.

Nafarroako kanala eraiki zenetik, lehorrekoak ziren labore-lurrak ureztatu egiten dira egun, eta ur horren %53 artoa ekoizteko erabiltzen da, erdia transgenikoa. Honen merkaturatzea ere aurrekoen logika berarekin egiten delarik.

Eredu industrializatu hau erregai fosilekiko oso menpekota da kate osoan eta ongari kimiko, herbizida eta funjizidekiko erabat adiktoa. Hauen kontsumoa, da-

tuek diotenaren arabera, 2009tik 2019ra bikoiztu egin zen gure lurraldean. Estatu osoan Nafarroa eta Araba omen dira kontsumo handiena dutenak.

Bestalde, abeltzaintza dugun argazkia ere ez da oso bestelakoa. Gurean, eredu intentsibo-industrial nagusitu da. Hemengo hazkuntzetako animalien elikadura bera, kasu gehienetan, ez da oinarritzen bertako errekurtsuen aprobetxamenduan. Hego Ameriketatik ekarritako proteina begetala eta batek daki nondik ekarritako zereala dute elikagai. Ez gara ari Kaparrosoko behitegiak bakarrik. Nagusi da esnetako behi-ustategietan, zerri eta hegazti haztegietan. Gainera zerrien kasuan, herrialdearen hegoaldean integradoreen bulkadaren ondorioz izugarri hedatzen ari da makroustategien eredu. Biztanle baino zerri gehiago dugu jadanik. Eta hauen haragia esportaziora bideratua dago batez ere.

Jasangarrienak izan zitezkeen ekoizpenak berriz, kontrako norabidean doaz. Ardien buru kopurua azken hogeitun urtetan erdira jetsi da. Orain idorte eta bero kolpeen eraginez sortutako suteek oroitarazi digute ardiek prebentzio lana egiten zutela. Garai ederrean!

Errealitate hau poliki-poliki joan da marrazten eta honen atzean arduradunak daude: kapitalaren bulkada batetik eta administrazio ezberdinen politika publikoak bestetik, izan nekazaritzakoak, sanitarioak, ekonomikoak edo komertzialak.

Ekoizpen eredu honen ondorio kaltegarriez asko hitz egin da azken aldiran, arlo askotan: ingurumenean, herrien bizitza sozio-ekonomikoan, gure kulturaren iraunkortasun ikuspegitik ez ezik, elikadura segurtasunaren ikuspegitik ere jasangaitza da. Aurten, esaterako, inoiz baino nabarmenago gelditu da eredu honek ez digula bermatzen gure herritarrontzat elikagai sanoak ekoizteko behar dugun bertako ekoizpen eredu iraunkor bat garatzea.

Horren erakusle da ondorengoa. Energiaren garestitzeak eta, honekin batera, merkatu espekulatiboetan

ematen ari den lehengaien prezio igoerak kinka larrian jarri ditu sektore guztiak, bereziki abeltzaintzakoak. Gainera, lehorte luzearen ondorioz, udaberri-udaran jasotako belarra eskas; udan herri lurretako zein behetako larreak gorri-gorri eta negurako gordea zenetik eman beharrak Erriberara bultzatu ditu abeltzainak forraje bila. Denen arazoa izanik, urrezko prezioak pagatu behar izan dituzte ganbarak beteko bazituzten, bete dituztenek. Eta zer eta bidean entzuteko, hemen aurten hain beharrezkoa den forraje horretatik deshidratatuta Arabia Saudira eramaten ari direla, edota biltegietan atxikita dituztela espekulatzaileek prezioak oraindik gehiago noiz igoko zain. Merkatu desregulatu eta zoroaren injustiziak eta basakeriak.

Honek guztiak inoiz baino argiago erakusten digu elikadura arloan egun gizarte bezala ditugun erroka ekosozialei aurre egiteko dagoen bide bakarra egiturazko aldaketak egitea dela: merkatuak erregulatzea eta elikadura burujabetzaren proposamen politikoa errealitate bilakatzea. Horrek elikadura sistema osoa modu integralean aldatzea eskatzen du. Lehenik, gure elikadurak bertako errekurtsuetara egokitu behar du eta bertako nekazal ekoizpen osoa gure herritarren eta inguruko komunitateetako elikagai beharrak asetzeko birrantolatu.

Bigarrenik, ereduaren aldaketa eskatzen du, sektore osoarentzat trantsizioa diseinatzea. Nekazaritza ongari kimiko eta fitosanitarioekiko duen menpekotasunetik atera behar da (lurra eta ura bezalako errekurtsuak kutsaduratik babesteko ez ezik, herriek uraren gaineke

burujabetza gal ez dezaten) eta, horren ordez, agroekologian oinarritutako manejo autonomoak eta iraunkorrak garatu. Aldi berean, labore dibertsifikazioa eta animalia zein pertsonendako lekadunen ekoizpena berreskuratu.

Abeltzaintza desintentsifikazio prozesuak abiatzea ezinbestekoa da, ustategietako animalia kopuruak gutxituz eta lurraldeko errekurtsuetara egokitu: tokiko belarra eta larreez gainera, Nafarroan bertan ekoiztutako alea, forrajea eta proteina begetal izan behar luke animalien jatekoa.

Aldaketa erradikal honek administrazioaren interbentzioa eskatzen du, politika publikoen bidez: nekazaritzakoak, ingurumenari lotutakoak, ekonomikoak, elikaduraren edo komertzialak. Eta finantzaketa, lehen sektoreak egun bizi duen larrialdi egoera arintzera zuzendu beharrean, norabide aldaketa hau sustatzera bideratu behar litzateke.

Kontziente gara agroindustriako botere ekonomikoek mehatxupean kontrolatuta dituztela erakundeak eta hauek gehienetan haien zerbitzura egiten dutela politika. Horregatik, herritarroi iritsi zaigu ordua antolatzeko kontsumo arduratsuen inguruan ez ezik, kalera ateratzeko aldarrikapen argi eta irmo batekin: "Nafarroan ELIKADURA BURUJABETZA ORAIN"

Datozen astetan hainbat espaziotatik antolatuko diren mobilizazio eta ekintzetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

BERTSOEN TXOKOA

Bi hamarkada luze ez gero ordu erdiz ezagutzen den hitza egin dugu Erdiz udan haziendak alant neguan erdiz mendia eta hitza ebakiak erdiz baina osorik nahi dugu baztandarrek Erdiz!!

Komunala herritarrei ezin zaie ebatsi bailara baten hitza ezin da ezetsi nekazaritza ezin du industriak iretsi gurea da geroa ez dezagun etsi eusten duenak bakarrik ahal du erdietsi!!





AITOR URIBE

baserritarra

**NIRI SEKTORE HAU
ETA BIZIMODU
HAU ASKO
GUSTATZEN ZAIZKIT,
ETA USTIAPENA
ALTXATZEKO APUSTU
BAT EGIN GENUEN
OSABAK ETA BOK**

Padilla gaztak egiten dituzte Otxandion Aitor Uribek eta bere osabak. Familiako ustiapenari haize berria ekarri dio Aitorrek, eta ganadu kopurua igotzeaz gain, gazta mota ezberdinak egiten hasi dira.

FAMILIAKO ERRELEBOA HARTU DUZU, EZTA?

Bai. Gure aitona eta amona artzaintzan aritu ziren bizitza osoan. Behiak ere izan zituzten. Ondoren, ustiapena osabak hartu zuzenean, aukeratu egin behar izan zuen, eta ardiekin zentratzea hautatu zuen. Gazta egiten hasi zen eta geroago Idiazabal izendapeneko. Urteak aurrera jarraitu ahala, eta osaba lan guztia aurrera ateratzeko bakarrik sentitzen zela ikusita, berarekin batera elkarte bat osatzera animatu nintzen.

AURRETIK ERE BASERRIARI LOTUTA BIZI IZAN ZARA ORDUAN.

Bai, lantegian egiten nuen lan baina nire ordu libreetan eta asteburuetan baserrian egoten nintzen. Hori bai, dedikazio osoa azken bi urteetatik honako kontua da.

ZAILA IZAN AL ZEN ERABAKIA HARTZEA?

Egia esan ez zitzaidan askorik kostatu. Osaba nekatuta zegoen bera bakarrik aritzen; gero eta ganadu gutxiago izateko joera hartu zuen. Azken belaunaldietan familian egin zen lan guztiak bukatzeko bidea hartu

zuen. Pena ematen zidan. Niri sektore hau eta bizimodu hau asko gustatzen zaizkit, eta ustiapena altxatzeko apustu bat egin genuen osabak eta biok.

ZER EGIN ZENUTEN EGOERARI BUELTA EMATEKO?

Hasiera batean ganadu kopurua altxatu genuen. Orain 400 ardi latxa baino gehiago ditugu eta okelarako behiak ere baditugu. Ondoren, gaztandegi berria ere egin genuen.

GAZTANDEGI BERRIA?

Bai, gaztandegi zaharra, ergonomia aldetik, lan egiteko ez zen batere eroso eta gazta produkzioa igota, arazoak geneuzkan gaztak biltegitratzeko. Txiki geratu zen. Nik oraindik bizitza guztia aurretik izanda, gaztandegi berri bat egiteko erabakia hartu nuen.

GAZTANDEGI BERRIA EGITEAREN PROZESUA ZELAKOA IZAN DA?

Prozesua ez da izan zaila, baina bai ordea kostu handikoa.

DIRULAGUNTZARIK JASO DUZUE?

Eusko Jaurlaritzak zerbait eman digu baina gauza handirik ez. Alde horretatik, uste dut laguntza gehiago egon beharoko lirakeela horrelako instalazioak egiteko.

Argi daukagu kate hori mantendu egin behar dela: norberak hazi, norberak loditu eta zuzenean kontsumitzaileari saldu. Inongo bitartekaririk gabe.

PADILLA IDIAZABAL GAZTAK EGITEN DITUZUE. NON SALTZEN DITUZUE?

Baserrian salmenta zuzena egiten dugu, Durangaldeko, Arratiako eta beste hainbat herritako komertzio txikiak ere eramaten ditugu eta hainbat azoketan izaten gara urte osoan. Eroskiri ere zuzenean saltzen diogu gure produkzioaren zati bat.

LEHEN LANTEGIA ETA BASERRIA UZTARTZEN ZENITUEN; ORAIN BASERRIAN ZABILTZA BURU-BELARRI. NOIZ LANPETUAGO?

Lehen lantegian nenbilenean, baserriera etortzen nintzen gustatu egiten zitzaidalako, baina ez neukan inongo obligaziorik. Orain, ni negoziaren parte izanik, hemen obligazioak daude. Osabaren eta bion artean atera behar dugu aurrera ustiapena.

NOLA ANTOLATZEN ZARETE?

Osaba eta biok batera egoten gara egun guztian, baina bakoitzak bere ardurak ditugu. Osabak ganaduaren gobernua ideia gehiago duenez, berak hartzen du horren ardura gehiago eta ni gehiago arduratzen naiz gaztandegiaz eta salmentaren inguruan. Momentuko beharren arabera, egin behar batzuk edo beste batzuk egiten ditugu, lehentasunen arabera. Egia esan, etxean ere laguntza apur bat badaukagu. Nire amak gazta egiten eta saltzen laguntzen digu.

OKELATARAKO BEHIK ERE BADITUZUE, EZTA?

22 okela behi ditugu, eta horien txahalak bertoko belarrarekin eta pentsuarekin loditzen ditugu. Ondoren, Oñatiko hiltegian hil eta loteetan saltzen ditugu. Bezero partikularrei saltzen dizkiegu zuzenean. Argi daukagu kate hori mantendu egin behar dela: norberak hazi, norberak loditu eta zuzenean kontsumitzaileari saldu. Inongo bitartekaririk gabe.

■ URTE GUZTIA EZ DA BERDINA IZATEN.

Ez. Urtariletik ekain-uztail bueltara askoz lanpetuago egoten gara. Ardiak bildotsak egiten hasten direnetik ardiak jezten bukatzen dugunera arte.

■ SASOI HORRETAN JARDUN LUZEAK IZATEN DITUZUE?

Bizitza kalitate bat izatea ere balioan jarri beharreko zerbait da. Ahalegintzen gara goizean goizetik jaiki eta arratsaldean arrazoizko ordu batean bukatzen.

■ AISIA ETA LANA UZTARTZEKO AUKERARI EMATEN DU HONELAKO USTIAPEN BATEK?

Bai. Helburuak horrek izan behar du. Ezin da egon pertsona bat egun guztian baserrian sartuta, lanak egiten. Bakoitzak bere bizitza pertsonala eta soziala dauka. Hori uztartzen jakin egin behar da. Horretarako klabea da pertsona bat baino gehiago egotea esplotazioan. Guk urtero oporrak txandaka hartzen ditugu. Lan karga gutxiago dagoenean hartzen dugu jai.

■ AURRERA BEGIRA, ZE ERRONKA DAUKAZUE?

Aurten hasi gara gazta ketua egiten, eta komertzializatzen hasi gara. Agian aurrera begira beste mota batzuetako gaztak egiten hasiko gara. Horrez gain, instalazioetan inbertsio txikiren bat ere egin beharko da.

■ ZER ESANGO ZENIOKE SEKTOREAN HASTEAREN PENTSATZEN DAGOEN GAZTE BATI?

Merezi duela bizimodu honek. Hori bai, argi izateko oinarri bat izatea ezinbestekoa dela bai ganadu aldetik baita instalazio aldetik ere. Zerotik hastea gaur egun ia-ia ezinezkoa da. Kristoren inbertsioak egin behar dira, eta gero bizi izateko beste atera. Horrez gain, asteburu eta jai egunetan ere lan egin behar da. Gauza on asko ditu, baina besteak ere ikusi egin behar dira. Eta batez ere, batez ere, gustatu egin behar da; gustuko izan behar da mundu hau honetan sartzeko.



ESNEKI

EUSKAL HERRIKO GAZTA ETA ESNEKIEN AZOKA

TOLOSA — Azaroak 5 — Noviembre 2022

eliker

TOLOSA



hazi





HAZIALDEKO, ESTRUCTURANDO EL SECTOR ECOLÓGICO DE NAFARROA

Hazialdeko nació a partir de una necesidad para la estructuración del sector de los cultivos extensivos ecológicos, en concreto, producciones de legumbres, cereales y forraje. El modelo cooperativo que había no daba solución de transformación a los/as agricultores/as que trabajaban en ecológico. Al ser cantidades pequeñas, no les ofrecían opciones de almacenaje y tampoco tenían salida para la selección y envasado de productos. “Muchas veces tenían que buscar a alguien que les limpiara y envasara con un registro sanitario a cambio de un favor”, explica Lorea Lizarreta, coordinadora de Hazialdeko.

La asociación Hazialdeko dio sus primeros pasos en 2019. En aquel entonces la idea principal era compartir maquinaria. Compraron una seleccionadora móvil, dónde se pueden pasar granos para separar la semilla y la mayor parte de lo que no se necesita. Ese proceso suele ser suficiente para las semillas y algunas veces para el trigo y el centeno, pero con productos para el consumo humano se precisa un nivel de limpieza mucho mayor y se necesita una maquinaria más avanzada.

Gracias a la asociación, ahora no están hablando de un solo productor con pocos kilos de producto, sino de 15 socios con muchas toneladas de productos. En concreto, la cosecha de 2022 ha dejado los siguientes números: 90.000 kilos de cereal de calidad, 150.000 kilos de forraje, 23.000 kilos de legumbre y 15.000 kilos de semilla seleccionada.

“ NO COMERCIALIZAMOS
MÁS LEGUMBRES
PORQUE NO LAS HAY ”

— Legumbres

En 2021 llegaron los primeros acuerdos con Ekoalde y Errigora. “Nuestra misión es trabajar pro soberanía alimentaria. La comercialización lo hacemos lo más cerca posible”. En este momento, las legumbres los comercializan gracias a Ekoalde y Errigora.

Mediante Ekoalde, abastecen de legumbres a comedores escolares y colectivos, entre otros. Errigora les facilita llegar a miles de hogares de Euskal Herria con cestas de Navidad y lotes de primavera. “No comercializamos más legumbres porque no las hay”, explica la coordinadora.


Recuerda que en este momento se está haciendo una apuesta por las alubias y pochas ecológicas: “estos productos normalmente no suelen de productores que trabajan en extensivo, sino de agricultores de huertas, pero al fin y al cabo son legumbres y hay que aplicarles el mismo proceso de transformación post cosecha que a otros legumbres”.

La asociación cuenta con un número importante de kilos de legumbres. “Gracias a ello, trabajamos con una empresa que nos da ese servicio. Limpian y envasan”, comenta Lizarreta.

— Cereales y forraje

Del mismo modo, una gran parte de los cereales los venden para la panadería. Una parte a los/as panaderos/as de Biolur y otra al grupo Lakabe de Nafarroa. “Una vez al año nos hacen un gran pedido. Hacen pruebas de panadería, analizan la calidad, y nos piden un poco de cada cereal”.

Hay otro tipo de cereal que no cumple con los requisitos de calidad y generalmente se suele ser para el ganado. Lo venden a los propios ganaderos mediante venta directa, y de la misma manera comercializan el forraje: “estamos haciendo una lista de ganaderos de Iparralde, Nafarroa y Biolur”.





— Relaciones

Normalmente las relaciones de venta son bidireccionales y entre asociaciones, explica Lorea. “Las asociaciones tienen a una persona para la coordinación. Cada uno reúne las ofertas y demandas de su entorno”. Además, realizan visitas ocasionalmente, para conocer distintas instalaciones y vías de comercialización. “Antes, para vender forraje los/as agricultores/as solían llamar a todos; y los ganaderos igual, cuando necesitaban forraje empezaban a llamar mil sitios. Ahora, llaman aquí y les comentamos las opciones que hay en Nafarroa”.



HAZIALDEKO HA NACIDO PARA ESTRUCTURAR EL SECTOR ECOLÓGICO DE NAFARROA; EL OBJETIVO ES OFRECER LOS SERVICIOS PARA ABASTECER LAS NECESIDADES DE LOS PRODUCTORES ECOLÓGICOS

— Envasadora

En Hazialdeko saben que el envasado puede ser común para todas las familias de productos y que eso le daría más autonomía a la asociación. Han recibido una subvención para comprar una envasadora, “mayormente para envasar legumbre a cantidades que interesan y que luego valdría por ejemplo para dosificar harina, si llegamos a hacerla alguna vez”.

Pero el problema con que se ha topado la asociación no es la propia compra de la envasadora, sino todo lo que conlleva: “un espacio para el trabajo, una instalación, adaptación para las condiciones sanitarias necesarias... Eso conlleva una gran inversión y ha sido la razón por lo que hemos retrasado la instalación de un centro para la envasadora”.

— Financiación

En este momento Hazialdeko está recibiendo subvenciones tanto para la compra de la envasadora como para la contratación de una coordinadora. Pero el objetivo que persigue

es que sea una entidad autónoma y sostenible económicamente. Además de las subvenciones, los/as socios/as pagan una cuota anual. Por último, cada kilo de producto que se comercializa mediante Hazialdeko tiene un margen: “ese margen es distinto según el trabajo que conlleva la realización de cada producto. No es lo mismo toda la gestión que necesita una legumbre o el que necesita un forraje”. Son una asociación sin ánimo de lucro, explica la coordinadora, y el objetivo de esos márgenes no es otra que satisfacer las necesidades de la asociación.

— Seguir creciendo

Para que Hazialdeko sea una asociación autónoma, necesitan más socios/as. “Hazialdeko ha nacido para estructurar el sector ecológico de Nafarroa; el objetivo es ofrecer los servicios para abastecer las necesidades de los productores ecológicos”, añade Lorea Lizarreta. “Ha empezado a venir un perfil que está todavía en conversión desde el convencional al ecológico; su producto no lo podemos vender mediante estas vías de comercialización, y hay que buscar otras estrategias y darles apoyo a esos agricultores”.

Se puede poner en contacto con la asociación mediante el formulario que está en la página web www.hazialdeko.eus o llamando al 621 229 415.

— Organización

La organización de Hazialdeko se basa en la asamblea. Además, hay varias comisiones donde se debaten temas más concretos; hay un grupo de legumbres, otro de cereales y también de maquinaria. En este momento los/as socios/as son productores de legumbres, cereales y forraje ecológicos, pero ya han empezado a preguntar los/as ganaderos/as sin pueden ser también socios/as. “Tenemos que reflexionar

acerca de ello, y ver si se puede crear otra figura de socio”, admite Lizarreta.

Ante todo, los miembros de la asociación están dispuestos a recibir ideas y propuestas nuevas. “Hemos recibido propuestas para trabajar con quinoa, mijo, lenteja roja... la gente está muy animada para que la variedad sea lo más amplia posible y que sacie las necesidades que hay”.





Landa eremuaren defentsan Erdiz Bizirik aldarriak jendetza bildu zen Elizondoko karriketetan

Jendetza bildu zen urriaren 12an Elizondoko karriketetan Erdizko bazkalekua bere horretan mantentzearen alde, Erdiz Bizirik plataformak deituriko manifestazioan. 2.000 lagun inguruk zeharkatu zituzten herriko karririkak, Baztango hainbat nekazarik zeramaten Landa eremuaren defentsan zioen pankartaren gibelego aldean.

Magnesitas Navarras (Magna) enpresak Erdizko bazkalekuan egin nahi duen meategiaren harira antolaturiko manifestazioa da, duela 15 urte egindakoaren parekoa. Izan ere, hogeitau urte baino gehiago dira multinazionalak Erdizen meategia egiteko asmoa agertu zuenetik. Orduko hartan, hainbat urteetako gora beheren ondotik eta jendartearen kontraktotasuna tarteko, Magnesitas Navarrasek proiektua, behin behinean, alde batera utzi zuen.

Herritarrek, Baztango Udalak eta Baztango Batzar Nagusiak behin eta berriz aldarrikatu dute Erdizko bazkalekua baztandarrena dela eta baztandarrei dagokiela horren inguruko kudeaketa, eta bertan zerbait egitekotan, herritarrek erabaki behar dutela. Horren harira, informazioa partekatu eta eztabaida garden bat eman ondotik herri galdeketa bat egitea adostu zuen Batzar Nagusiak. Dena den, ekainean, Espainiako Gobernuak galdeketa hori ez zuen baimendu, eta hortaz, Batzar Nagusiak bertze galdeketa bat, kasu honetan ez erreferendarioa, antolatu zuen. Urriaren 23rako deituriko kontsulta hau ere alde batera utzi behar izan zuen Batzar Nagusiak, Espainiako Gobernuaren Nafarroako ordezkariak behartuta.

Bien bitartean, Magnak bere meategi proiektua Nafarroako Gobernuaren aitzinean aurkeztu zuen uztailaren 29an Udalez Gaindiko Eragina duen Proiektu (UGEP) gisa. Proiektuarekin batera, Foru Intereseko Inbertsio deklarazioa galdegin zuen. Exekutiboak lau hilabeteko epea du proiektua UGEP gisa onartzen duen ala ez erabakitzeko.

Testuinguru honetan egin zen manifestazioa. Izan ere, Erdizko bazkalekua Baztango bazkaleku handiena eta era berean aberatsena da. Uda honetan berean, bertze hainbat tokitan idortearren eraginez bazkarik gabe gelditu badira ere, Erdizen uda guztia eman du azientak. Erran

behar da, urtero, hamarnaka nekazari baztandarrek ehunak behi, zaldi eta ardi eramaten dituztela Erdizera alhatzera, eta horren erakusgarri, manifestazio buruan agertu zituzten hamarnaka behi, ardi eta zaldiak. Txalo artean hartu zuten manifestariak azienda, eta baita hauek zaintzen zituzten abeltzainak ere.

«BIZITZAREN ALDE»

Plataformako kideek adierazi zuten, «berriz ere argi erran nahi dugu herri honek ez duela onartuko ez multinazionalen, ez gobernu arrotzen agindurik. Ez digute erran behar ez Madrildik, ez Iruñetik gure herri lurak nola kudeatu eta zaindu, gure ura eta airea nola garbi atxiki, ezta gure lanaren balioa zein den ere».

Nafarroako Gobernuaren «UGEParen inposizioa» eta «galdeketa debekua» salatu zituzten, eta argi utzi zuten «nekazaritza estentsiboa, ingurumenaren zaintza eta turismo jasagarria ez direla bateragarriak Magnak egin nahi duen meategiarekin».

Gehitu zuten «proiektu hau ez dutela gauzatu Esteribar-ko lanpostuei balioa eman nahi dietelako. Azkenengo hamarkadetan maizegi ikusi dugu nola denen zergetatik hartutako diru publikoa multinazionalari oparitzen zaien; hortik hilabete gutira langile guziak kaleratu, eta lansari merkeagoak ordaintzeko bertze nonbaitera mugitzen diren bitartean. Adibide aunitz daude inguruan: Aceralia, Siemens Gamesa edota Magnak berak ere, zenbat bete gabeko promesa dituen Zubirin eta Sorian. Guk lanpostu duinak eta sostengarriak nahi ditugu denendako, Baztanen zein Esteribarren».

Honez gain, «ezezkoaren kanpaina egiten ari garela eta guziaren kontra gaudela» diotenei erantzun zieten; «gauza batzuen kontra gaude bai, eremu babestuek eta bazkalekuak xehatzearen kontra, ura eta airea kutsatzearen kontra, eta gure lurak eta diru publikoa ebatsi nahi duten multinazional eta politikarien kontra. Batzuk dioten bezala, ez gaude beti kontra, Erdizen alde gaude, ur garbiaren alde, gure bizimoduaren eta kulturaren alde, nekazaritza, lanpostu eta turismo sostengarriaren alde eta bizitzaren alde!».

ELB 
ELKARTASUNEZ
LABORARIAK BORROKAN
40 urte!





ETXALDEAK ETA HERRIAK BIZI DITEN, BETI LABORARIEN ALDE

« ELBk 40 urte betetzen dituen honetan, PAC-ek 60 urte bete ditu. 60 urte dira Frantziak eta Europak dirua banatzen dutela laborantza industrialaren alde. »

Prezioen inflazioak laborantza mundua zailtasunetan jartzearekin batera, haserrea eta estutasuna iritsi dira etxaldeetara. Horregatik, joan den irailaren 10ean, larunbatarekin, ELB sindikatuaren 40. urteurren besta aldarrikapenez jantzi zen. Beñat Etcheto, Donaixtiko laborari eta ELBko bulegoko kideak, oroitarazi zuen «lau hamarkadaz, ELBk frogatu duela borrokatzen dakiela eta bide horretan segituko duela laborarien arteko elkartasunari esker».

Goizean, 300 lagun inguru ibili ziren Donibane Garaziko karriketan egin zen manifestazioan, eta ondotik, bazkaria egin zen Izpuran: Hego Euskal Herriko talde batek gerrenean erretako aratsekia. Egunak aitzina segitu zuen, Gaia elkarteak antolaturiko herri jokoe-kin, Garaztarrak dantza taldearen ikusgarriarekin eta azkenik, musikarekin. Urtebete honek, bestalde, aukera sortu zuen sindikatuaren historiari begiratzeko, 1982tik eraman diren borroka ezberdinei buruzko argazki erakusketa baten bidez.

ZERBITZU GUTXIAGO, ETEKIN GEHIAGO

Egunaren momentu azkarra manifestazioa izan zen. ELBk hainbat mezu pasarazi nahi izan zizkien laborarien lana baldintzatzen duten eragileei. Goizean, Jean-Paul Duhalde ELBko bozeramaileak egin zuen irakurketa: «bada krisia, baina ez denentzat, edo ez maila berean denentzat». Manifestazioa Jai Alaitik atera zen, buruan «etxaldeak eta herriak bizi dituen, beti laborarien alde» banderola atxikitzen zutelarik.

Lehen geldialdia, Garaziko Crédit Agricole bankuaren aitzinean egin zuten. Maritxu Lopepe Lartabaleko laboraria mintzatu zen orduan, bankuei eta aseguratza konpainiei buruz, «besteak bezalako enpresa bilakatu baitira, etekinak egitea helburu bakarria dutelarik». Adibidetzat, azpimarratu zuen Crédit Agricole bankuak 2021ean 9 miliar euro etekin atera zituela. Oroitarazi zuen hastapen batean, «laborarietarako mundu justuago baten alde» sortu zela bankua, eta teoriarik laborariak direla jabeak. Baina gaur egun, «bankuak geroz eta mesfidatiago agertzen dira proiektu txikiak, eta handiak sostengatzen dituzte, nahiz eta ez bideragarriak izan eta laborarien zorpetzea eragin». ELBk urratsak espero ditu egitura horiengandik, krisi garai honetan etxaldeak laguntzeko. «Iniziatiba horiek itxoiten ditugu!» erranez bukatu zuen bere hitz hartzea.

ESTATUA ETA BERE ARDURAK

Manifestariak herriko bide nagusitik segitu zuten, Herriko Etxe aitzinean geldituz. Bertan, instituzio publikoei buruz mintzatu ziren. Mirentxu Auzquik, PAC politikaren gehiegikeriak salatu zituen. «ELBk 40 urte betetzen dituen honetan, PAC-ek 60 urte bete ditu. 60 urte dira Frantziak eta Europak dirua banatzen dutela laborantza industrialaren alde.» Arnegiko laborariak Estatu frantsesaren ardura salatu zuen, hamar urtez 100 000 etxalde desagertu direlarik, «ez baita borondate politikorik izan lobien kontra egiteko».

PAC berria urtarilaren 1ean abiatu behar litzateke eta Mirentxuk sindikatuaren aldarrikapenak oroitarazi zituen: «PAC justuago bat ezartzea, laborarietaz zuzenagoa, diru publikoa ez banatzea abere edo hektare kopuruaren arabera, eta behingoz has daitezela laborariak laguntzen beren lanetik duinki bizi daitezela».

ETEKINAK BIRBANATU

Izpurara abiatu aitzin, manifestariak azken geldialdi bat egin zuten Donibane Garaziko Carrefour supermerkatuaren aitzinean. Izan ere, EGALIM legeak hor badira ere, banatzaile handiek ez dute asmorik erakutsi laborariak ekoizpen gastuak konduan hartuz ordaintzeko. Beñat Etcheto mintzatu zen mikrofonoan: «Insee estatistika institutuak aurreikusi du elikagaiek %12ko garestitzea izanen dutela urte batean, emendaketa hori ikusi al duzue zuen etxaldeetan?». Aipatu zituen zifreen arabera, 2021ean Auchan enpresak 344 000 milioi euroko etekina egin zuen, Carrefourrek 1,07 miliar euro eta Leclerc-ek %3-ko emendatzea. «Beti laborarien bila ari dira beren 'tokiko' sailak hornitzeko, baina etekinak ez dituzte inoiz banatzen» gehitu zuen Beñatek.

Bukatzeko, Panpi Sainte-Marie, ELBko idazkari nagusiak, oroitarazi zuen sindikarak eramandako lan guzia. «Zerotik partiturik eta haizeen kontra, erakutsi dugu proposamenak egiteko gaitasuna dugula eta beharra izan delarik, mobilizatzea ere.» Borroka horietan parte hartu duten militanteak eskertu ondotik, belau-aldi berriei dei egin die, borroka segitzen baitu.

ARRANGURAK PARTEKATU ETA ELGAR LAGUNDU

Nola sartu zirezte ELBko Gazte taldean?

Laura Irigaray: ELB Gazte taldean sartu nintzen, 2011an instalatu eta gero. Aitzin, Euskaldun Gazteria elkartearen nintzen eta hortan barnekaldeko problematikak lantzen ginituen, laborantza eta etxebizitza bezala. Beharbada horren segida logikoan naiz ELB Gazten sartu. Jakin behar da duela 40 urte Euskal Gazteriako militante aintzek ELBren sorreran parte hartu zutela.

Peio Eliceits: Eskola bukatu eta, ateraldi bat antolatua izan zen Gipuzkoan eta hola hasi nintzen ELB Gazten, ez nintzelarik oraino instalatua. Jakinez plantatzekotan nintzela, laborari munduko jendea hobeki ezagutu nahi nuen eta batez ere laborari gazteak.

Zein gaien inguruan lan egin duzue?

L. I.: 2010ean, DJA ukaiteko formakuntza 21 orenetara pasa zen. Ikastaro hortan MSA baita bankuek, Crédit Agricole gure kasuan, haien burua aurkezten zuten. Baina ELB Gazterekin lortu ginuen bankuen aurkezpena kentzea 21 oren horietatik. Bankuak laborarien "partaide" gisa aurkezten ziren baina guk ez ginuen hola ikusten. Iduritzen zaukun gazteer hastapenetik aintz inbestitzen bultzatzen zutela eta ez ginuen egoki atxemaiten.

P. E.: Beraz batez ere instalazioaren inguruko problematikak segitzen ditugu. Urtero ELBtik laborari gazte ba-tzu atxeman behar ditugu haien etxaldearen bisita eta haien esperientzia aurkeztu dezaten 21 oren horioetan.

Gazte taldeak antolatu duen zein ekimen azpimarratuko zinituzkete?

L. I.: Urtero Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiako etxaldean bisitatzeko ateraldiak hasi ginituen antolatzen eta beti laborari gazte andana bat hurbiltzen da. Hango etxaldeak edo animalekoak dira edo ttipi ttipiak, hemen ez bezala, ez da erdibiderik. Hamar hektarearen gainean hamabi behi esnedunekin ari den laborari baten bisita egin ginuen eta erakutsi zaukun nola lortzen zuen bizitzen izaera hortako etxalde batekin. 2018 urte bukaeran Paueko laborantza ganbarako hauteskunde kanpaina pil-pilean zelarik, ELBko gazte taldearekin antzerki bat egin ginuen ere. Tartean Kintoa eta Ossau-Iraty sormarker buruzko parodiazko publizitateak egin ginituen, kanpainak giro pizuz arintzea eragin zuen. Holako ekimen baten antolatzea biziki inportantea da elkar ezagutzeko eta taldearen girotzeko.

P. E.: Duela ez hainbeste, "kafe instalazioak" antolatu ginituen ere. Laborari gazteen artean ezagutzeko helburuarekin, lurraldeko xoko guzietara joan gira AOC, biologikoa edo mendiko laborantza bezalako gai batzuen inguruan trukatzeko. Hor ere jendea hurbildu da formula polita baita: arrats batez ostatu batean elkar-tzen gira gai bati buruz eleketan aritzeko.

Nola ELB Gazte gaur egungo erronkei erantzuten ahal du?

L. I.: Nahi dugu laborari izan baina egin ahala denbora libre ukanez eta hortan ikusten dut zailtasun bat. Erronka hori da: gazteek nahi dute laborantza bizi eta denbora ukan. Bestalde, gaur egun instalatzen den eta berriki inbestimenduak egin dituen gazte batek aurreikuspen gutti ditu oraiko kontestua ikusirik. ELB Gazteak permititzen du holako arrangurak partekatzea eta elkar lagun-tzea. Beste laborariekin elkartu behar da etxaldean dituzun arazoak beste manera batez begiratzeko. Zure etxaldeko arazoak mundu orokorrangoan ulertzeak laguntzen du.

P. E.: Orohar laborari gazteek laborantza munduan ezagutzen ditugun zailtasun berak pairatzen dituzte. Gaur egun ez dakit nola gazte batek enbeia ukan dezaken proiektu baten muntatzeko eta nola geroa aurreikusten ahal duen. Bestalde, laborantza eskoletan irakasten denekin ez dut bat egiten beraz erronka bat ikusten dut gazteen formakuntzan. Denboran erraiten zen etxaldea beti emendatu behar dela zerbaiten ateratzeko eta gazte aintzek ideia hori bakarrik atxikitzen dute. Orain alda-tzen ari da laborantza biologikoa edo mendiko laborantza erakusten baita ere, pentsatzen dut hein batean ELBri esker. Urtero ELB Gazte taldeko batek bere etxaldea aurkezten du lizeoetan. Horren bidez beste diskurtso bat eskaintzen diegu gazteer eta segur niz zerbait atxikitzen dutela.

Gazte bati zer erranen zenioke ELB Gazten sartzeko?

L. I.: Leku batean gira zoinetan elkarte aintz baden beraz konziente naiz gazteak hartuak direla. Aintzentzat ELBn militatzea berantago jiten da, helduendako elkarte bat bezala. Ai-tzin erran bezala, ELB Gazte laborarien artean ezagutzak egiteko leku bat da. Sindikatuaren bidez eta besteekin trukatzeko gure etxalde ttipiak inportanteak eta modelo iraunkor bat errepresentatzen dutela ikusi dut, bai lurraldearentzat bai laborarietaz. Eta ez da behartua ELBn izaita "kafe instalazio", ateraldi eta bestelako animazioetan parte hartzeko.

P. E.: Batzuetan zaila da etxaldek libratzea eta denbora atxemaitea bilkura eta animazioetan parte hartzeko. Baina biziki inportantea iduritzen zaut, gazte zirelarik eta batez ere eskolatik ateratzen zirelarik, beste gauza batzuen ikustea eta entzutea. Ene kasuan hasteko, ELBko komisio batzuetan anitz ikasi dut, sindikalgin-tzan esperientzia duten jendeekin. Bai laborantza mailan bai bizitzako beste aspektu aintzetan gauza frango ikasten dira. Laborariak, laborantza gure etxaldek bakarrik ikusten dugu baina sindikatuan inplikatzeko laborantza besteendako eta lurralde batendako begiratzeko duzu, taldean lan eginez. Ez dut erran nahi "zauri ELB Gazte-rat, bikaina da". Gehiago azpimarratuko nuke ikusmolde desberdin bat badela, gure arazoan aipatzeko leku dela eta emeki emeki hola ikasten dela.



ELB IZAN DA HAUTATU ETA ERAIKI DUGUN FAMILIA BAT

“81 urteko garai hartan, guk ere FDSEA-n parte hartzen ginuen. Guretzat argi zen ez ginuela gehiago sindikatu hortan segitzen ahal, guk nahi ginuen laborantza defenditzeko eta sustatzeko. 82ko urriaren lehenean ELB sortzen zen, duela 40 urte xuxen xuxena. Erabaki horren hartzeak, ez dugu gordeko, ez zela egin orduko kide lagun edo herritar batzuekin haustura bat izan gabe... ELB izan da hautatu eta eraiki dugun familia bat. Elgar ezagutuz elkartasun handi bat sortu da gure artean. Familia berri hortan denek elgarrekin lan egitea asmatu ginuen. Gaiak ez ginduen sailkatu behar, gizon eta emazten arazoak denenak baitziren. Elgarrekin behar ginituen gaintzen. Hala ere, gai batzuetan emazten iritzia beharrezkoa zen, gure burua langile gisa senditzen ginuen etxaldetan. Adibidez haurdun oporraldien ordezkatzeari urrik izan dadin. Azkenean 40 urte behar izan dira, berdintasuna lortzeko langile eta laborarien artean.

Bertze alhor batzutan ere ezagunpena lortua izan da! Laborarien formakuntzaren diruztatzea! 85. urtean antolatu ginituen gogoeta informazio egun batzua “Prairies Pochin” gaiaren inguruan. 50 laborari bildu ziren Pochon teknikalariaren behatzeko. Guk galdegin ginuen diru laguntza ukatua izan zaukun FAFEA egiturarengandik. Gure haserrea erakusteko, azken hunen bilkura baten ondoren, ate aintzinean etzan ginen, deliberoak hartzen zituzten kideen blokatze barnean. Gure gaintetik kurrituz atera ziren gelatik (salbu kide bat). Bortizki hunkitu gaituen ekintza bat, hau izan da. ELB familia hortan izaiteak eman dauku indar, elkartasun sustengutua baita ere harrotasun bat.”

Kimi IRALOUR, Alice CACHENAUT, Mikele BERHOCOIRIGOIN, Jenofa MENDIBOURE, Bernadette OILLARBURU.

ITZELEZKO ERREFERENTZIA BAT

“Amets Ladislao naiz, 42 urteko emakume bizkaitarra. Azken urteak Bizkaigane elkartearen emantzen ditut. Bizkaigane elkarte, Errigoitin kokatuta dagoen proiektu kolektiboa da. Esne behiak, ardiak eta txerriak ditugu. Baita ortua eta oiloak ere autokontsumorako. Bizkaigane abeltzantza ekologikoa egiten dugu. Gaur egun, esnea, esnekiak eta txerrikiak egiten ditugu. Dena salmenta zuzenaren bitartez saltzen dugu... Lana txandaka egiten dugu, ardurak banatuz. Ehne Bizkaiko ejekutibako kidea naiz eta Etxaldeko kidea ere bai. Etxaldeko emakume-etan ere aktiboki parte hartzen dut. ELBri buruz hitz egitea ez da erreza niretzat, itzelezko erreferentzia bait da zentzu askotan. ELB izenetik hasita, “Laborariak” datozelako burura, ez lehenengo sektorean diharduen edozein proiektu, ereduari garrantzia emanaz. Uste dut ere “Batasuna”-ren esan nahia elkartasunean oinarritzea lortu duzuela, korporatibismotik aldenduz eta hori oso garrantzitsua da izaera politikoa definitzeko orduan. Hegoalden oraindik amets bat da hau gaur egun. Militantzia eta herrigintza batzen dituen praktiken adierazle da eta Euskal Herri desberdin bat laborantziatik eraiki daitekeela erakusten duen eragile sindikal bat da ELB. Azken urteetan, desobediencia-tziaren praktikaz, hausnarketa eta eraikitze bide berriak zehazteko gaitasuna erakutsi du ELBk eta laborantza geroa euskal biztanleriaz elkarlanean eraiki daitekeela ere bai. Bukatzeko eta nola ez, nekazaritza iraunkorraren eta ETXALDE mugimenduaren nahi-taezko zutabe eta arnasgune da. Gaur egun, baserritar mugimendua ELB gabe ezin daitekeela ulertu, zorionak 40 urte hauengatik! Bidea elikatzen jarraituko dugu.”

Amets LADISLAO, EHNEko kidea eta Bizkaian laborari.



LABORARIEK DUGU SINDIKATA OSATZEN

“Enetzat ELB hemengo laborantza defenditzeko harresi azkarra da. 40 urtez borroka frango eraman ditu, gogoeta berriak eta baitezpadakoak jendarteratu ditu. Zuhaitz handi eta sendo horrek gure lur emankorrean errotu eta garatu diren haziak bota ditu hamarkadetan zehar (sormarkak, AFOG, APFPB, BLE, EHLG...), beti laborarien egoera hobetzeko. Ezin da ukatu Ipar Euskal Herriko laborari guzietatik ELBren lanaren emaitzak baliatu eta ez bakarrik hunen kideek. Aski da beste eskualde batzuetan so egoitea ohartzeko mobilizatzen ez diren lurraldetan zer heineraino ahuldu den ofizioa. Hemengo elkartasunari esker, laborantza bizi da eta laborariak badira oino gure etxalde gehienetan. Azken urteetako borroka baten aipatzeko, ahateen inguruko mobilizazioa hauta nezake. Beste behin, jendea mobilizatu behar izan da industrialen eta administrazioaren zentsugabekeriari oldartzeko. Berriz ere, zentzu ona eta belaunalditan hobetu den jakitatea eta egin den lana desagertarazi nahi lukete, diruarekin itsutua den eta pareta jo duen sistema baten justifikatzeko. Hor ere ELBri esker eztabaida sortu da, zentzugabekeria agerian eman da eta jendarte zabala mobilizatu. Erne egon beharko da beti. Deus ez da irabazia eta deabrua beti hor da bide hegian gorderik. Azkenik ez dezagun ahantz, laborariak dugula sindikata osatzen eta denek behar dugula gure harria ezarri guti batzuk ez dezaten obra guzi hau haien gain ukan. Denen beharra badago! Anartean eskerrak bihotzez 40 urtez borrokatu diren laborari guzietatik!”

Panpi OLAIZOLA, laborari Ezpeletan, Ezpeletako biper sindikataren lehendakaria

EGUN GUZIETAKO MILITANTEEN INDARRA

“Ttipidanik ELB-ri buruzko solasak entzuten nituen etxean. Nola ez... Laborari sindikalista zombaiten botza ere ezagutzen nuen, telefonaren beste puntan. Eta nik beti arrapostu bera: “bai, aita pasatzen dautzut”. Berantago, laborantzaz gero eta interes gehiago ukaitearekin batean, gogoeta jin zautan ene baitarik eta barnetik ikustea etxean beti entzun nuena, bainan funtsian gutti ezagutzen nuena. Hala nola, duela orain hamabost bat urte, gazte taldean sartu nintzan. Berehala giroa gustukoa atxeman nuen. Etxalde bisita eta ateraldiak ginituen programan, hogeit bat urteko gazte batzuentzat ezin hobea!

Geroztik, kasik urte guziz ekitaldi bat antolatu dugu, elgar ezagutzeko eta beste egiteko molde batzuen ikusteko. Confédération paysanne-eko gazte batzuek ere topatu ditugu bilkura edo ekintza ezberdinetan. Eta orohar bisita desberdin eta jende desberdinekin trukaturaz, azkartu egin zautan ene hastapeneko enbeia, laborantzaz bizitzea, molde iraunkor eta herrikoiki batean. Denbora berean, sindikatan gero eta gehiago implikatzearekin batean, ohartu niz laborari eta laborarisa ainitzen engaiamenduaz, militantzia, denbora emaitzez. Uste dut hori dela ELB-ren indar haundiena, uste dut gaur arte borroka ainitz irabaziak izan direla horri esker. Orohar, sindikataren bi bertute nagusiak hola ikusten ditut : Egun guzietako militanteen indarra alde batetik, ... eta elgarrekin biltzean sortu giroak, bakotxari emaitzen daukun indarra bestetik!”

Xabi HARLOUCHET, Behi esne ekoizle Ahatsan.

ETXALDETIK KOLEKTIBORA, DENEK DUGU ZERBAIT EKARTZEKO

“Aurten jasaiten dugun egoera zaila, gogoeta, elkarlaguntza ta erresistenzia iturri izanen da dudarik gabe. Laborarixa gaztea naiz, motibazioz bete baina ezin gorde kezka... Kapitalismoak kenka larrian ezartzen gaitu, jende eta natura; ura eta lurra. Aspaldian agerikoak dira ondorio katastrofikoak, urte urte krisian den maxina hori, aurten besteak beste sukarretan da. Dena kontrolatu nahiz: lurra, haziak, hazteko manera, etxalden neurria, prezioa ta ondorioz laboraria. Produktibitate, kompetitibitate, eta teknologia berri erantzuten duen modeloa lehenetsiz. Eta agrokimia ala agroindustriari dependentzia inposatuz. Beharrik parean ikaragarriko dinamika gauzatu da: azken 40 urtetan ELBk garatu borroka etxalde ttipiak sustatu ta problematika anitzi erantzuteko tresnak sortu ditu. Eta gaur ere, etxaldetatik kolektiborat denek dugu zerbaitekartzeko. Lurralde hunek behar duen laborantza herrikoia bizirik da, erresistitzen du ta erresilentea da! Zorionak ELB! Restons fermes!”

Amaia ELICHIRY Baratzezain Behaizen.



REFORMA DEL ACTUAL SISTEMA DE COTIZACIONES A LA SEGURIDAD SOCIAL

Este año 2022 se ha aprobado la Ley 13/2022 de 26 de julio por el que se establece un nuevo sistema de cotización para las personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas y se mejora la protección por cese de actividad.

